En nuestros días aún existe alguna barca en Lezo, pero las actividades maríneas —otrota tan gloriosas y tan importantes— de los vecinos de ese pueblo, son hoy prácticamente nulas. Asimismo alguna zona del litoral lezotarra se utiliza para cargar y descargar arenas y troncos de madera, sin que ese pequeño tráfico marítimo revista el menor interés ni se considere zona portuaria autónoma la correspondiente al pueblo que nos ocupa.

El continuo aumento del tráfico marítimo pasaitarra, ha dado lugar, en los últimos tiempos, a nuevos proyectos de muelles e instalaciones radicadas en el litoral de Lezo, que podrá así llegar a ser nuevamente zona portuaria, aneja a la de Pasajes.



LEANDRO SILVAN - «LEZO»

Aurrezki Kutxa Munizipala (1975)

LEZOKO ETXE ZAHARREN IZENAK

ETA BEREN BERRESKURAKETA



Gaur gure iraganaren berreskuraketaren atzetik gabiltzan euskaldunok badugu nahiko lan gure kale eta etheen jatorrizko izenak errekupeatzean. Lezoko garai bateko etxeek, eta Euskal Herri osoan gertatzen zen bezalaxe, bazeukaten beren izen jatorra eta berezia, batzuetan toponimiarekin zer ikusirik zeukana, bestetan nagusiaren bizi-bidearen berri ematen ziguna eta besteetan nagusiaren izen bera agerian uzten ziguna. Lezon hiruetakoak eduki ditugu, nahiz eta zoritxarrez, gaur egun etxeko atarietatik desagerturik egon. Batzuk ahoz aho gorde dira eta bizirik iraun dute gaurko egunetarako, besteak gure artxiboko paperen artean ezkutaturik egon dira hautsak noiz astinduko zaizkien zain.

Gai hau Kultur Batzordean ondo ikertu ondoren, Gobernu Batzordera pasa zen eta baita onartu iazko urriaren hogeian. Gaur txartelen aukeraketa eta presupuestuen azterketa falta zaigunez gero, esan dezakegu laister gure begien bistan eta denon ezagupenean egongo direla. Baina bitartean ikus ditzagun zeintzu diren izen hauek eta zeintzu diren etxe hauetan azaltzen zaizkigun beste zenbait berezitasun.

BEHEKO PLAZAN

2. *zenbakia*. Ba omen dirudi etxe honek ZABALA-ENEA izena zuela, eta izenak ederki esaten digun bezala, Zabala abizena zuen norbaiten etxea zela adierazten du. Eta oraindik errurik badago etxeko aurrekaldean dagoen armarrarian begiratzea, besterik ez dago. Han garbi garbia irakur bait daiteke honako testu adierazgarria: «SOY DE ZABALA».
4. *zenbakia*. PASKUAL-ENEA, bere jabea izan zenaren izena agertuz.
6. *zenbakia*. INDIANO-ENEA. Etxe hontan dago gaur kokaturik bere beheko aldean «Aizpea» Ostatua, eta izenarengatik atera dezakegunez, ba omen dirudi Lezon ere Ameriketarik diruarekin etorritakoak egon zirela. Kanta zaharrak ederki kontatzen digun bezala: «Ameriketara joan nintzan zentimorik gabe ta handik etorri nintzan maitia bost miloien jabe.» Eta etxe honen izenak gogoratzen diguna hauetakoren bat izango da dudarik gabe.


7. *zenbakia*. MARIYA-ENEA. Etxe honen nagusia emakumea zen berriz, eta MARIYA edo MARITXUren izena hor azaltzen zaigu oraindik.
8. *zenbakia*. GALARDI. Aintzinako jabea gogoratuz. Gaur bere beheko aldean Lezon dugun estanko bakarra kokatzen da.

KALE NAGUSIAN

2. *zenbakia*. ITXUE. Izenetik ezin dugu gauza garbirik atera, baina aipatu beharra dago Gaintxurizketa aldean badagoela izen bereko baserria.
4. *zenbakia*. ARPIRE-ENEA. Norbaiten hondasuna dela adieraziz. Etxe honek badu ere bere harrizko armarri dotorea.
5. *zenbakia*. ZABALA ETXEA. Ba omen dirudi etxe honen lehenengo jabea Zabala abizeneko itsasgizon bat izan zela eta hortik datorkio bere izen zaharrena. Bestelako izenak baditu ere, horien artean ZABARRE (Zabalaren larre) lehengoaren adierazbidetik abiatzen zaiguna.

Urteen poderioz bikarioaren etxea izan zen eta horregatik aldatu zioten izena BIKARIO-ENEA ipiniz, eta hauxe da gaur oraindik paper legaletan azaltzen dena. Baina hemen ez omen da bere izenen zerrenda bukatzen, geroxeago koartela izan zenean holako izenarekin ezagutzen bait zen, eta gaur egun KOARTELA da herriaren ahotan erabiltzen dena. Etxe honek badu bere harrizko armarri eder eta jatorra.

6. *zenbakia*. SUSANA-ENEA. Bere garai bateko jabearen izena agertaraziz. Bere armarria gordetzen du, eta ate nagusian, goiko aldean JHS inskripzioa.
8. *zenbakia*. MARIPOXA-ENEA. Agian «maripoxa» = pinpilinpauza izengoitia edo ezizena zeraman norbaitena zela azalduz.



10. *zenbakia*. MAISU KRISTOBAL-ENEA. Bere garai bateko nagusiaren izena eta bizibidea agertarazten dizkigu. Ez dakiguna da zeren maisua zen.
11. *zenbakia*. HARRIESKAILETA. Bertako harrizko eskaileraren berri ematen diguna.
12. *zenbakia*. LABEA. Egia esateko ez dakigu hauxe bere izen zaharra zen, edo bertan labea zegoenez gero, bakar bakarrik etxe hau aipatzerakoan herriak aipatzen zuena. Gauza da oraindik izen honekin izendatzen dela.
14. *zenbakia*. ALTZATE-ENEA. Aintzinateko Lezon bizi izan zen Altzate izeneko leinu edo linajearen gogoa ekartzen diguna. Xiur aski bere nagusiak leinu hontakoak izango ziren.
15. *zenbakia*. XAGU-ENEA. Beste ezizeneren bat ote?
16. *zenbakia*. JAMOT-ENEA. Lezon eta Pasai Donibanen bizi izan ziren gaskoi ugari haietako baten hondasuna agertzen ote digu? Oraindik badaude gure herrietan haietako gaskoien berri ematen diguten abizen pila: Trezet, Laboa, Bandres... Bere armarria agerian ikus daiteke oraindik.
20. *zenbakia*. Etxe honek bi izen ditu: PANTXIKA-ENEA eta ATAUNDARRA-ENEA. Biok bi jabe ezberdinen berri ematen digute.
22. *zenbakia*. MANDAZAIA-ENEA. Bere jabearen bizibidea dagerkigu.
30. *zenbakia*. PIKANDIA-ENEA. Nagusiaren abizena erakusten diguna. Bere ormetan honako plaka grabatu bitxi hau irakur daiteke: «Aquí mataron a Juanes de Salaberria yendo su casa. Ruegandos por el alma a dieciseis de agosto año 1648.» Iraganeko tragedia baten oroigarri argia.

Eta Kale Nagusiko goiko aldean, Pasai Donibaneko bidetik gertu, gaur Kultur Etxea den eta bere izen zaharraz ezagunagoa den ANDREONE etxea. Guztiz eraberriturik dago, eta gaur zenbait kultur ekintzetako erabiltzen da, halanola euskarazko klaseak, Musika Akademiaren ekoitza, Zine emanaldietako... Ba omen dirudi etxe hau Blas de Lezo marinelen sortetxea dela. Gaur bere armarri dotorea kontserbatzen du.

BESTELAKO ETXE IZENAK

Baina Beheko Plaza eta Kale Nagusitik kanpo badaude beste etxeak bere izen zaharrak gorde dituztenak. Normalean garai bateko hirialde edo kaxko zaharrean kokatzen dira. Ikus ditzagun.

Donibane Kanean JAUREGIALDE izenekoa. Dirudienez izen honek gaur MARKESANE daraman parkean zegoen LEZOHAUNDIA izeneko jauregiaren berri ematen digu, nahiz eta bakarrik hurbiltzeagatik izan. Jakin badakigu Lezohaundia Lezoren sortzailea izan zen Gillermo Lazonen etxea zela, eta urte luzeetan bertan bizi izan ziren bere ondorengoak. Zoritarrez gaur ez zaigu jauregi honen deus gelditzen, bere oroimena ez bada. Esaten dutenez ba omen daude Lezon bizirik, beren gaztedian Lezohaundia oraindik erdi zutik erdi eroria ikusi ahal izan zutenak. Gaur egun ez dakigu noiz eta zergaitik bota zuten. Aurreko gorpazioak oroigarritzko monolito edo plaka bat jartzea Markesonon onartu zuen. Tamalez ez zen bete, eta gaur ez dago ezer Lezohaundia egon zen tokian bere iraganeko presentzia gogorazten diguna.



Zubitxo edo Txuitxo auzoan badaude bestalde holako etxe batzu, oraindik bi armarri gordetzen dituen ZUBITXO izenekoa eta sagardotegia izan zen TXERRIMUÑO ospetsua garrantzitsuenak direlarik. Auzo honetan badago beste etxe famatua, nahiz eta askoz berriagoa izan: GITET, bere nagusia zenaren abizena gogoratzen diguna.

Aipatu beharra daude URRULLOBERRI (Jaizkibel Kanean) eta Goiko Plazan dagoen BIKARIO-ENEA izeneko etxea. Azken honek oso ondo adierazten bait digu bere biztanleen izakera.


Ikusten dugunez, Lezoko etxeek badute beren berezitasunak, denborean zehar ederki gorde dituztenak. Orain guri dagokigu gordetzen eta iraun erazten ahalegintzea. Ez dezagun bazterrera bota gure arbasoengandik jaso duguna. Historiak makina orri ditu, gertaerak, gudateak, hondamendiak... eta etxe hauen izenek beren biztanle arrunten berri ematen digute, biztanle arrunten berri arruntak, baina ez horregatik besteak baino garrantzi gutxiagokoak. Historia orriz orri idazten da, eta orri hau galtzen badugu jai dugu historia zehatz bat idazteko orduan.

ZABARRE


«GAINTXURIZKETAKO INDUSTRIALDEEN ETA KANPO ALDEKO ERREPIDE BERRIAREN IZENDAKETA»

Jaioberriari beti izena jartzen zaion bezala, horrela da ohitura gure kale eta eskualdeekin. Hortarako badaude zenbait irizbide ezberdin, herriko pertsonaia ospetsu baten izena darabilkitenak esate baterako, edo bestela ekintz historiko baten izena edo data ipintzen dutenak. Baina Euskal Herrian gehien erabili izan dena toponimi erizbidea izan denez, eta hau argi eta garbi azaltzen da gure herri eta bailara izenetan, gure abizenetan, gure mendi, bide, erreka, baserri... izenetan, haxe da ondorioz gure industrialde jaioberriak eta beraien barruan sortuko diren kaleak bataiatzeko proposatzen duguna.

Hauetako industrialde batzuk aspalditik zeuden arren, ez zeukaten inolako izenik, eta bereizteko edo aipatzeko orduan beren legezko banatze zenbakiak erabiltzen ziren, eta gainera erdaraz, 108 (ciento ocho) poligonoa, 103 (ciento tres) poligonoa... Egoera lotsagarri honek lezoarren alde ezer gutxi esaten zuela ikusiz, gaia Kultur Batzordean ikertu zen eta behin izenak bilatu ondoren Gobernu Batzordera pasa zen beren onarpena egin



«ITTURRIN» INDUSTRIALDEA



« Sagasti » Industrialdea

zezaten. 87ko urriaren 19ko bileran onarturik gelditu zen eta gaur obren bukaeraren zain gaude hauen bataio erreala gauzatu dadin.

Ikus ditzagun zeintzu izan dira aukeratutako izenak, zeintzu beren arrazoiak, eta zein beraien kokapena.

1. — 103. POLIGONOA

Zabalera honetan bazeuden bi izen eztabaidatzeko: Lehenengoa LETAMAN eta bigarrena ITTURREIN (ITTURRIENE). Lehenengoarekin beheko aldean, tunel ondoan dagoen zabalera izendatzen duena, eta bigarrena goiko aldeko zelaiak hartzen zituen baserri zaharraren izena daramana.

Bigarren hau lehenengoa baino zabalagoa denez, baita Letaman bera ere hartzen bait du bere barnean, izan da aukeratu dena industrialde osoari izena emateko orduan. Baita kontuan hartu da bataiatzeko orduan, Iturrin desagerturiko baserria dela, eta bertako baserritarrek oraindik izen hau darabilkitela leku honi nolabait deitzeko. Beraz aukeraturiko izena ITTURREIN INDUSTRIALDEA da.

Beheko mapan ikus daitekenez, bere barruan lau kale sortzen dira, eta erizpide toponimiko berak erabiliz, hauxek dira harturiko izenak:

1. ITTURREIN KALEA.—Iturrin baserria zegoen lekutik pasatzen dena. Bera izango da industrialde honen ardatza edo bide nagusia.
2. ABENDAÑO KALEA.—Abendaño baserriraino igotzen dena.
3. OLAIZOLA KALEA.—Olaizola baserrirantz zuzentzen dena.
4. ITXU KALEA.—Itxu baserrira igotzen dena.


2. — 103. POLIGONOA

Kontuan hartuz industrialdeko lur gehienak SAGASTI baserria zenaren eremuetan daudela, egokiena zirudien baserri honen izena erabiltzea, eta horregatik haxe izan zen aukeratua: SAGASTI INDUSTRIALDEA. Bere barruan sortzen diren lau kaleak izendatzeko erizpide berari jarraituz honako izen hauek onartu ziren: URUNE KALEA, Urune baserria zenaren aurretik pasatzen dena, IRURTZUN KALEA oraindik zutik dirauen eta denok ezaguturiko taberna denaren aurretik igarotzen dena, SAGASTI KALEA Sagasti baserria zenaren aldea dijoana eta HARITZBAKAR. Azken honen izen jartzea izan da prolematikoena ez bait da bide hau, izenik daraman inongo leku ezagunetik pasatzen, baina kontuan hartuz bidea luzapen hipotetiko batekin HARITZBAKAR baserriko lurraldeetara iritsiko zela, haxe izan zen bataiatzeko orduan ontzat eman zen izena. (Ikusi beheko mapa.)

3. — KANPO ALDEKO ERREPIDE (EDO IBILBIDE) BERRIA

Oraindik bukatu gabe dagoen bide honekin erizpide bera erabili zen, eta horrela Kultur Batzordeak eskaturik, gure Ilari zahar jakintsuarekin hitzegitea erabaki zen, eta honela jakin ahal izan genuen garai batean kai aldean ba omen zegoela POLENTZARRENE izeneko baserria. Zenbait liburutan konprobatu ondoren izen hau onartu zen bide berria bataiatzeko. Bidea lehen aipatu dudan bezala bukatzeaz dago, baina proiektuak falta ez direnez gero, laster espero dugu gure POLENTZARRENE BIDEA oso osorik eta egoki egokirik ikustea.

ZABARRE



Jaizkibel Mendia



Euskal Herria mendiz josirik dagoenez, hiriak, herriak, herrixkak, auzoak..., normalki mendi baten magalean egoten dira. Honela herri bakoitzean bere mendia (edo mendiak) izaten dute. Esate baterako, Tolosak Uzturre, Donostiak Urgull, Igeldo, Ulia, Irunek San Martzial... Askotan mendi horiek oso zabalak izanik herri askori ematen die itzala, eta hemen, mendi hauen artean kokatu beharko genuke gure Jaizkibel. Jaizkibel ez da osoki lezoarra. Ez!, Hondarribiak badu ere bere puska eta Pasai Donibaneke baita ere berea. Honela mendiak egiten ditu hiru herri hauek anai, batzutan lagun, eta beste batzutan etsai... Artaldeek larreak direla eta, edo iratzeak direla eta..., beti egon da aitzakiren bat herri hauen harremanak hoztutzeko.

Ez da oso mendi garaia, baina bai luzea. Mendi honetaz asko mintzatu da, bere dorreetaz, bere zelaietaz, bere sisa eta perretxikuetaz..., Jardun gaitezen orain piska bat bere izenaren esanahiaz. Sinesten denez, bere izena «HAITZ» eta «GIBEL» hitzen loturatik dator kigu. Hasierako «J» hori, hizki erantsia da. Erantsiera hontan badu zer ikusia «H» ahoskatuaren fonetikak. Jatorriz ba, JAIZKIBEL HAIKIBEL zen: HAITZ - GIBEL = haitzaren atzeko aldea. Holako izenarekin ez du ematen oso bidezkoa denik izena mendi guztia aipatzeko erabiltzea, bakarrik atzeko aldea esan

nahi bait du, bainan herriaren erabilkera zeharo orokorra dela ikusirik ontzat eman beharko da. Azken finean, beti herriak hitz edo izen batez egiten duen erabilkerak da balio duen bakarra.

V.1.—KONDAIRAREN BIDEETAN

Orain dela denboraldi luze, zuhaitzez eta sendabelarrez josita omen zegoen. Haritzak, arteak, pagoak, lizarrak..., mendiko nahusiak ziren, eta zer esanik ez bere magaletako fruitu zuhaitzetaz, hauen artean sagarondoak, muxikondoak, eta gaztai-nondoak ugarienak.

Bainan XVII, XVIII eta XIX mendeetan, eta olagintza, ontzigintza, nekazaritza eta abelzaintzaren aurrerapenarekin batera, Jaizkibeleko aberastasunak pixkanaka pixkanaka galtzen jon ziren. Alde batetik egur asko behar bait zen itsasontziak egiteko (kondairak esaten digunez espainiar Armada Invencible-aren itsasontzi batzu Lezo eta Pasaiaiko untzioletan eginak zeuden, Jaizkibeleko egurra erabiliz. Bestaldetik olagintzan ere, egur franko behar zuten (adibidez, ehun kilogramo burdin lortzeko bostehun kilogramo ikatz behar ziren, eta hortarako pago, haritz eta arteen zura zerabilkiten).

Nekazaritza eta abelzaintzaren aurrerapen haundiak bere ondorioak ekarri zituen. Hostoak eta garoak oso apreziatuak izaten ziren behien azpiak antolatzeko. Gaintikan, baso asko eta asko erre ziren larreak lor ahal izateko. Honela izadiak hainbeste urte luzez egin zuena, gizonak urte gutxitan hondatu zuen.

V.2.—IZADIAREN ALDEKO LEGEAK

Bainan hala ere ez pentsa gure arbasoak ez zirela gure baso eta gure mendietaz arduratzen, 1397ko gipuzkoar lege batek zioenez, bost hegalongo edo fruitu zuhaitz baino gehiago mozten zuenari heriotz zigorra ematen zitzaion. Haritzak, pagoak eta lizarrak ezin zitezkeen moztu, lehorrik, hilik, ez bait zeuden behintzat. Ota zabalera bat erretzen zuenari sei urtetako desterrura bidaltzen zitzaion. Zuhaitz bat mozten zuenak bi hazi behar izaten zuen.

1548 urtean Gipuzkoako Junta Orokorrek egindako legeari jarraituz, udal bakoitzak urtero bostehun zuhaitz landatu eta zaindu behar izaten zuen. Lege hau betetzen ez zuen udalari multa gogor bat botatzen zitzaion, eta kopuru hau gainditzen zuenari sari on bat ematen zioten. Honelaxe 1784 urtean haritz, pago eta gaztainondoen artean, Gipuzkoan, hamaika miloietako kopurura iritsi zen. Gaur egun altxor horlegi honen aztarna exkas batzu, besterik ez zaizkigu gelditzen, eta Jaizkibelen zer esanik ez.

V.3.—1738ko AGINDUA

Lege honek dioenez, mendi propioen ugariera eta egokiera aurrera eramateko, baita itsasuntzien eraikuntzarako ere, behar beharrezkoa zen Jaizkibelen (eta orokorki mendi guztietan) zuhaitzen landatze eta hazieraren politika on bat.

Herri bakoitzean, «SU»-ei jarraituz egindako banaketa bakoitzarengatik beharrezkoa zen hamar mila haritz landatze eta hazitzea, agindu berari segituz herri ba-

koitzak hazitegi egoki bat eduki behar zuen, eta herrian zeuden zuhaitz guztien berri ematen zuen inbentario antzeko liburua baita ere.

Bestaldetik, kontuan izanik, Jaizkibeleko egurra untzigintzarako erabiltzen zela, agindu zen hortarako oso zur ona eta egokia ematen zuten izeiak Jaizkibel mendian landatzea urte gutxiren barru ugaldtu zitezen. Hortarako, Añamendietan (Pirineoetan) zuahitz hau oso ugaria zenez gero, bertatik hazia ekartzea agindu zen. Hala ere, eta ondo ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, ez zen gehiegi ugaritu.

V.4.—HAZITEGIAK (1768)

1768 urtean, komisario batek mendia bisitatzen du hazitegiak eta landatzeei buruz agindutako legeak betetzen diren edo ez jakiteko. Berak, bere agiri batetan dioenez, «errepublika» honetan ondo betetzen zen agindutakoa, bakarrik eremu txiki batzu erabiltzen ziren inorkina eta behien azpitako.

Komisarioaren txostenari jarraituz, Batxilerbordako iratzelekuan, Antzilategin, Txangenen, Harrihaundian, Saroizarren eta Aintxurizketan, Juantene baserriko hazitegian aurkitzen ziren hogeita mila landare landatu behar zirela jakin dugu. Eta modu berean, Batxilerbordako iratzelekuan hazitegi berri bat sortu behar zela. Era berean, markatu ziren zuhaitzak Saroizarren eta Itsu-Goienan.

V.5.—AZIENDA LARRAKETEN INGURUAN SORTUTAKO ISKANBILAK

1826an, kanpotik etorritako artalde baten berri izan dugu. Hau ikusirik, hemengo artzainak haserretu ziren beren larreak arriskuan ikusiz, eta beren protesten artean emandako arrazoinak hauek ziren: ez zela bidezkoa hemengo larrak txikiak izanik kanpotarrek bertakoen kaltean erabil zitatzela, eta gutxiago oraindik (haiek arbuitzen zutenek), kanpotik ekarritako ardi batzuek «pikota» izeneko gaitza edukiz.

Urte berean, lur jabeen, ganaduzaleen eta probintziaren interes orokorrak armonizatzeko asmoz, Gipuzkoako Junta Orokorrek lege batzu kaleratu zituzten. Lege hauen bidez, larretzeko erabili behar ez ziren lur eremuak, eta mendietan jartzen ziren hesien garaiera erregulatzen ziren.

1863an, ametz eta haritz landareak sortzen ziren lurretan larretxea debekatu egin zen.

1926an, eta Unibertsitatean hartutako akordio batez, zuhaitz berriak babestu nahian, ohiturazkoa zen inorkin jasoketa debekatu egin zen. Honen aurrean, beren interesak defendatuz, akordio honen altzamendua exijitu zuten. Honela, eta iskanbila honen ondorioz, 1928an, inorkina edo garoa jasotzeko leku jakin batzu banatu egin zitzaizkien. Hauek ziren markatutako lekuak: Aldarrakuntzako gaina hamabi zatitan banatuta, Bonatxoko gaina bi lurralde eta hogeita zatitan banatuta eta Sorotxotik Tiñelura doan eremua hamahiru zatitan.


V.6.—PINU AROA


XX. mendearen hasieran hasi zen Jaizkibelen lehenengo pinuak sartzen. 1925an, udalak bere lehenengo pinu entresaka egin zuen Jaizkibeleko lur komunaletan. 1926an, Jaizkibeleko eremu haundi bat erre zen, otsailaren 25an hain zuzen. Galerak sei mila pinuena izan zen. Hamalau urte zituzten pinu hauen balorea hiru mila eta seirehun peztakoa izan zen. Honen ondorioz, Lezoko udalak erretako lurretan bost urtetan larretzea galerazi egin zuen.

Azken gudatea bukatu ondoren, eta Jaizkibelen garai batean egon ziren basoen desagertzea osoa ikusirik, errepoblazioen bidei jarraitu zitzairen. Baina zoritxarrez errepoblazio hau aurrera eramateko erabili ziren zuhaitzak ez ziren izan Euskal Herriko mendietan klasikoak zirenak, baizik eta sortu berriak zeuden papelerei eta haiek emandako interes ekonomikoei begiratuz, neurri haundi batetan pinu insignis, eta itsas pinuak erabili ziren.

1956ko otsailan egin zuen negu gorriaren bitartez pinu gehienak izoztu ziren, eta nahiz eta udalak pinu gazte gehiago sartu, Jaizkibel basamortu zabal bat bihurturik gelditu zen. Honi lotutzen badizkiogu espainiar ejerzitoaren ezarketa eta garai hontatik hasi ziren erreketak ugari bezain misterioitsuak oso nabarmena agertzen zaigu Jaizkibel mendiaren gaur egungo egoera penagarria.

KARLOS ETXEZURIETA - «Lezoko Herriaren ikuspegi «gaintza» sozio-politiko historikoa (1984) (V. kapitulua)





LOPE MARTINEZ ISASTIREN ATSOTITZ BILDUMA

Soberan dakigu euskaldunok zein aberastasun haundia daukagun gure ahozko literaturan, bera izan bait da urte luzeetan gure tradizioen sostengu bakarra. Zorionez denborak aldatzen joan dira eta XVI. mendetik Beñat Etxepare naparraren lumarekin hasita, euskaldunok gure literatura idatzia sortu eta ezagutu egin dugu. Batzuentzako zeharo pobrea, besteentzako guztiz jator eta garatua. Iritzi asko errealitate gordin batentzat, gauza da euskal literatura idatzia badagoela, eta danon eskuetan gainera. Hala ere ahozko literaturak bere garrantzi haundia gorde du, eta hor daukagu bertsolaritza nire hitzen lekuko. Beste batzuk pattalago doazte, desgertzeaz edo erdararen zabalkundearean ondorioz arront moteldurik eta arnas galdurik. Horixe da gure errefrau zahar edo atsotitzei gertatu zaiena, erdal errefrauen indarraren azpian erdi ezkuturik, erdi galdurik egon bait dira urte luzeetan. Zorionez, eta gure kultura osoari gertatzen ari zaion moduan, hauts lotiak ari dira astintzen eta itzalpean gorderik zegoena goiz argitan azaltzen. Honelaxe gure atsotitz zaharrak berpiztu dira gure ikasle gazteen ahoetan, eta dirudienez etorkizun bizi bizia dagokie, gure hizkuntza eta gure kulturari dagokien etorkizun bizi eta jator berbera. Gaur egun dakigunez, lehenengo errefrau bilduma 1556 urtean argitaratu zen «Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance» izenburuarekin, eta 539 errefrau zekarazkielarik. Ez dakigu nork eginak diren, baina ikerlari batzuek diotenez ba omen dirudi bere egilea Esteban Garibai arrasatearra izan zitekeela, urte horien inguru eta bere erderazko liburu baten barruan Arrasateko historigileak beste atsotitz bilduma bati argia eman bait zion. Ordutik eta garai ezberdinetan zenbait errefrau bilduma kaleratu dira, agian garrantzitsuenetakoa Arnaut Oihenarte zuberoarrak XVII. mendeko hastapenetan argira atera zuena dugarik. Lezotarrak badugu zer esaterik arlo honetan, 1625 urtean gure kronista eta historiagile haundia izan zen Lope Martinez Isastik bere «Compendio Historial de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa» izeneko liburu ospetsuan garaiko atsotitzen bilduma kuttun eta ederra utzi bait zigun. Ikus ditzagun gaurko grafian moldaturik eta berak ondoan ipinitako erdarazko itzulpenik gabe.

1. Haitzean jaioak haitzera nahi.
2. Agoak (masa) bero deño (den bitartean) salda.
3. Alaba gaizki ezkondua etxera bihur.
4. Alferrik nekatu baino, hobe da geldirik egon.
5. Amorezko ezkontzea, dolorezko bizitzea.
6. Amuarraia amutik eta arkumea larrutik.
7. Haritz eroriari orok (danok) egur.
8. Hartu-emanak du gustua.
9. Askok daki zaharrak, erakutsi beharrak.
10. Atean uso, etxean otso, hala bizitzea gaizto.
11. Aukeraren maukera, azkenean okerra.
12. Balizko olak burnia gutxi.
13. Batek mila balio eta milak batere ez.
14. Beharegile gaiztoa, erakusle on.
15. Behartik igesi Castrora, han ere beharrik asko da.

16. Begiak buruan jakintsuak, eta eroak oinetan.
17. Behiak on du larrea, hobeago jabea.
18. Buztana lastozkoa duena, suaren bildur.
19. Zaietan zur, eta irinetan ero.
20. Kartari karta, eta burniari dirua.
21. Txindurriari ateratzen zaizkionean hegoak, galdu ohi ditu gorputza eta besoak.
22. Zura beherago, arra barrenago.
23. Dakienak lan egin dezake, ez dakienak leher daiteke.
24. Darraioarentzat (jarraitzen duenarentzat) da ehizea.
25. Diru gabeko handitasuna, su gabeko bartzuna.
26. Ezin egina harria baino gogorrago, harriari mailuaz ere baledeko (ken dakioko).
27. Egokia hartzari sedazko beloa.
28. Egiok egileari eta emaiok emaileari.
29. Eliza zegienak (egin zuenak) aldarea, aldarea zegienak abadea.
30. Erle joanak ezirik ez.
31. Herrik bere lege, etxeak bere ohitura.
32. Errota onari bia (txehetzea).
33. Eskeak solasa galdu.
34. Pakea ez da diruz erosia.
35. Gauza gordea, urre gorri.
36. Gauza zeharra, bera larra.
37. Gaizki jan eta gaizki lan.
38. Gogoia mihiak (mingainak) salatu.
39. Gorrak hitz gaitzari lehia.
40. Goiz gorri euri dadin, Arrate gori eguraldi.
41. Gorrotoa bilau huts.
42. Gero dioenak, bego dio.
43. Gezurra esan nuen Getarian, ni etxean eta hura atarian.
44. Gibelerako on dena, barerako gaizto.
45. Gure zahioak irin eske.
46. Izan bagera, gerra huts.
47. Etxean ogia ezin jan eta Arangurenen artoa.
48. Idiak erausi beharrean, gurdiak orru.
49. Hildakoak agindu zuen, biziak bere nahia
50. Hiltze ona merkaduria (aberasgarria).
51. Ilunpeetako jostea, argitako lotsa.
52. Irabaziak, oinak arin.
53. Itsasoko legeak, onak on eta gaiztoa neurri gabea.
54. Itsuen herrian, okerrak (begiokerrak) errege.
55. Lagunaren behiak, errape luze.
56. Larrutik edea (korrea).
57. Lehen hila, lehen hoztua.
58. Hitzmotelak beti hitz nahi.
59. Nolako elizalde, holako abade.
60. Nola soinu, hala dantza.
61. Nolako nobia (emaztegaia), halako kabia.
62. Nola denbora, hala solasa.
63. Nor bere denborarako, harbia abendurako.

64. A zer zelaia, jana ez balego.
65. Odolak su gabe diraki (irekiten du).
66. Ola o!agizonarentzat, eta barka barkamaisuarentzat.
67. Olatik berri onik ez.
68. Ohian orotan (guztietan) otso bana.
69. Ontzia galdu ezkerro, guztiok pilotu.
70. Zakurrik ez den lekuan, azeria errege.
71. Orogen (denon) ardia otsoak jan.
72. Okin berriak bahe zuri.
73. Otsoa atari ondoan.
74. Otsoaren ahotik bokadu bat ere on.
75. Otsoa ardien zai.
76. Pagatzaile gaiztoarengandik olo.
77. Saltzen dabilena, galtzen dabil.
78. Sugea hil arren, sugekumeak bizi.
79. Lana trebeziak garai.
80. Unaiak haserretu zirenean, azaldu ziren gaztak.
81. Urte gaiztoa, okin hots.
82. Urrutiko berria, lehena egia.
83. Ur joanari, presarik egin ez.
84. Uretara maiz dijoan txarrua, laster da hautsi.
85. Usoak joanda, sarea gora.

Ikusten dugunez, larogitabost errefrau dira Isastiren bildumaosatzen dutenak, larogitabost errefrau jator eta xume, nahiz eta askotan agertzen diren hitzak guztiz zaharrak izan gure gaurko egunentzako, zaharrak, arkaikoak, eta askotan gure bizimodutik urrun, kontuan harturik gaurko euskaldun gehienok bestelako bizimodu batean bizi garela.

Gaurko euskal gizartean badaude oraindik baserritarrek, arrantzaleak, marinelak, artisauak... baina zorionez edo zoritxarrez egunetik egunera gutxiago dira, gaurko bizimodu urbano industrializatuak oso bestelakorik eskatzen bait digu. Ola-gizonak, errotariak... aspaldi galdu ziren, eta noski pertsonaia hauen mundutik ateratako hitzak sarritan bitxiak eta ulergaitzak egiten zaizkigu, bere barneko esanahia bitxia eta ulergaitza egiten zaigun moduan. Eta hori da askotan Lope Martinez Isastik egindako atsotitz bildumarekin gertatzen zaiguna. Hala ere ezin diogu Isastiren lanari inolako meriturik kendu, ez desmeriturik eman ere, eta nahiz eta bildumaren argitaratze egunetik gure egunetaraino makina urte igaro, esan dezakegu batere bildurrik gabe, lezoar historiagilearen errefrauak beren esanahi osoa mantendu dutela, hori bai gure gaurko bizimodu korapilotsuarekin ondo mozturirik.

Karlox Barrentsoro

askapena

*«que se apague la guitarra
que la patria está de duelo
nuestra tierra se oscurece.
Mataron al guerrillero.*

PABLO NERUDA

Larre zabalean neskatoaren ile horiak lau haizeetara dantzatzeko dihardute; burutxo haize boladen erritmo goxoaz darabilki, ileak, sorbalda biluzian behera, ile horiak, paisaiaren osotasunean murgilduz, gorputz kiribildu saltarinaren ibilera ez-tiki-
-ez-tiki lastanduz. Eguzki izpiak lurrera jauzten dira zeru urdina orratz xume batez marratuz. Zeru urdina, begi urdin argiak, neskatoaren ile horiak zeru urdinean dantzatzen, ilexirgila begi urdinak inguratuz, eta sorbal biluzia; soineko xuria erdi eroria, sorbalda behera, eta eguzki dizdiratsuak soinekoa argitzen du, haizeak, bere magalean astintzen duelarik; soineko xuria, argia oso, iztarretan gora nahasturik, iztar tartean itsatsirik.

Larre zabalean. Neskatoa, neskatoaren ile horiak dantzatzen, soinekoa iztar tartean. Larre zabalean neskatoa eta ni. Eta anaia... lurrean. Orru mingarria dantzatuz, begirada negartia... anaia, etsaiak zauritua, lurrean usteltzen, lur bihurtzen, eta odola, eta neskatoa, ile horiz, soineko xuriz.

—neskato! Hator..., Hator, ez beldurtu; ile hori preziatua iku diezanadan; hire begiradaren argi izan nadin.

Ile horiak sorbalda biluziaren gainean dantzaka. Gorputz kiribildua, haizearen kulunkan galdurik itzuli da; begi urdinak mugagabetasunean murgildu dira, irrifarra, xamurra oso, niri.

—Neskato! Hire gorputz birjinaren magalean, sorbal biluzietan irristakor, bular ttipietan bizitzaren hazia dastatuz, iztartarteko emankortasunaren mugagabea olatu-
durturik, suzko amodioaren txinparta bilakatuko nauk.

—Ez zaitia horrela mintzo, ez, arren. Anaia dukezu lurrean, odolatan.

—Anaia... Bai... etsaiak zauritua. Anaia... Baina sorbal ez-tia, eguzkipean hazi-
dhoazen bular borobilduak, soineko iheskorren jostailu.

—Fitsik ere ez erran; anaiaren nigarra dukezu, anaiaren borroka..., lurrean.

Izpi argitsuek beren loratzea eten dute. Itzala da bazterretan, ganibeten dizdira zorrotza. Argia ohostu digute. Orru dardartiek gurutzatzen dute iluntasuna, beltzune huts hau azazkatuz, liskar eta gatazka bidea urratuz. Begi izutiek larre berdeak zeharkatzen dituzte, egun, odoleztatuak; irrintzi mingarriak haizearen kulunkan. Ile horien dizdira galdu da, soineko zuriaren xuritasuna itzalpean igatua da, sorbal biluziak estali eta bere bulartto tenteak erortzen utzi ditu; nigarra dagi, begi xumeetatik malkoa dariola.

Urrunean lanbro beltza dakust, inguru guztiak bere estalki ilunaz biltzen. Ortzea zeharkatuz, otso beltza, betortzetatik uso xuria zintzilik daramala, odol tantoka, gatazka honetan jarraitu beharreko patua marratuz. Odol gorria luma xurietan, eta gorriaren sua bidea argituz. Eta anaia, lurrean, odoleztaturik, oihuka dantzut laguntza eske, bere esku odolduez nireak eske. Eta neskatoa, ile horiduna, ile horia dizdirarik gabekoa, begi ilunduak. Malkoak xugatu ditu eta bere oin ttipiez ortzeruntz doa, esku ttipiez otsoa harrapa arte; lepoa bihurrituko dio, itoko du, apurka-apurka, uso xuria, hego xuriak odoleztaturik dituen, aske izan arte. Esku ttipiak otsoaren odolaz zikindu ditu; soineko xuria ziprirtin gorritz josi da. Usoaren gorpu xuria eskuetan hartu eta irrifarrea eskeini dit, begi urdinen irria eskeini dit.

—Anaia dukezu eritua. Jaso lurretik. Lepoan hartu eta segi usoaren patua; so, hegoak bertzeen eta bere odolez dituenaren bidea.

Soinekoa kendu du. Soineko xuria gerrian behera bere erortze pausatuan bularrak laztanduz, iztarretan behera aluko ileak miazkatuz, oihal xuria larre berdearen hezetasunean zabaltu delarik, berdetasunean xuri, mugagabetasunetik adierazitako plazer intziri luzea baitlitzan.

Uso xuria bularren kontra zanpatu du, aluko ezpainen hezetasunean jolastu da, gorputzeko bazter izkutuez jabetu da, segidan, lau haizeetara aske utzi duelarik; eta usoa, hego gorriduna, hegaka hasi da ortzean argi izpi bat sorraraziz. Urrats xuria darrait. Neskatoak, ile hori dizdiratsuak airean zabal, ortzeari biluztasuna eskeini, eta usoari isilka berba dagio: «astindu hitzan hegoak eta beha, so egin, itsasoz harunt eta honuntz. Laino beltzak uxatu, etsituarekin junta.»

«1492, putreek behe dagite egan
laino beltzetan bilduriko eguna
egun hura, beltza.
Mendebaldeko anaia
mendebaldearen izenean
gurutzea
eskuan
eta ezpata aurrean
Odola bor-bor, oihuak,
lau haizetara.
Odoleztatuak.
Akatuak
izan ziren 65 milioi inditarren
odolarekin

inditarrak, 65 milioi.
Herri ugari, tribu ugari,
hirurogeitabost milioi
Espainiako erregearentzat,
gurutze, okzidentearentzat.
La Habana ko enparantza nagusia
mulatoen dantzatzeko arina;
beraien gorputz beltzaranetan
anai bizardunaren irria dakuskin.
Izarra txapelean: «Prefiero morir de
pie que vivir de rodillas.»

Eta Bolivia ko oihanean murgiltzen haizenean
hire kantua loratuko dun:




	«Soldadito de Bolivia soldadito boliviano armado vas de tu rifle que es un rifle americano para matar a tu hermano. No sabes quien es el muerto soldadito boliviano, el muerto es el Che Guevara y era argentino y cubano.»	(I)
Portugal, 1974,	apirilak hogeitabost klabelinen gaua. Otelu Saraiva de Carvalho ez dugu etsiko.	
Alemania, 1976,	maiatzaren bederatzia. Presondegietan nigarra, ukabilak burnizko hesietatik kanpo at. Ulrike MEINHOF bere zeldan erahila.	
Korsika, 1976,	gaua kaleetan, eztanda ugari korsikar herriaren irrintzia frantzes inperialismoaren aurka.	
Ireland, 1981,	Ulsterreko kaleak koktel molotoven suaz herri izan nahiaren suaz goriturik. Sua. Presondegian gizon argal batek errango din: «nire hortzetan itzaliko den azken ahantsia beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.» Boby Sands eta bederatzi kide Mazeko presondegian hirurogeitasei egun gose greban.	
Palestina,	harriak etsaiari. Harrizko herri hau. Herri Harri.	
Aitaren etxea,	mendi gailurrean txalaparta ttakun ttakun basoetako haritzez ttakun	

Mari jainkosaren ahaideak erretzeko erabilia
 ttakun, ttakun
 tta tta tta kun, kunttakunkun
 ttakun
 Tartalori
 ttakun
 Basajauni.
 Orreaga
 ko gatazka
 kun ttak ttak kun kuntt
 Gernika
 ko sarraskia,
 suaren magalean
 irrintziak tt, tt kun n n.
 Uso xuri
 hegoak ditun gorri
 herriaren karraisi.
 Adi ttakuna, , ttakkun, kuntt, tta
 eta
 jarri arrano beltzaren itzalpean
 oldartu intziri luzeetan
 emankortasunaren eldarnioan,
 larre berdeen hezetasunean
 blai
 askatasunez
 blai.

Eta neskatoa, ile horiduna, dizdira bilakatu da eguzki azpian; iztarrak ortzearen
 mugagabetasuneruntz zabaldu ditu, eta andere bihurtu da. Andere Askatasuna.

AITOR SARASOLA

(I) Nicolas Guillen.





La academia de música...

No acaba de desaparecer la estela del curso anterior, cuando la gama de sonidos de los distintos instrumentos empiezan a esclarecerse en la Academia Municipal de Música de Lezo.

Las voces cristalinas de los componentes del coro «TXINPARTA» surgen del fondo del local, como si de un río de lava procedente de un volcán se tratase.

Lava que durante el curso que se avecina sedimentará en distintas fechas celebrando las efemérides de Santa Cecilia, Navidades, Santa Agueda y otros compromisos que se han marcado dentro y fuera de nuestro pueblo.

Sin embargo, la erupción se producirá en fechas próximas, cuando las 450 matrículas que se contemplan emanen melodías en todas las direcciones anunciando oficialmente el comienzo del curso 88-89.

Durante este curso, se intentará sobre todo consolidar la infraestructura de la academia. Al mismo tiempo, y si los problemas de aulas se resuelven buscar perspectivas para los próximos años.

En principio desarrollar el programa pedagógico que nos marcamos el curso anterior, nos parece lo más importante. Pues el balance que tanto profesores, padres y alumnos nos hicimos al respecto fue muy positivo.

Buscar alicientes y sentido a los estudios que un alumno realiza en la academia, es la constante cuestión que se nos plantea.

Desde luego que la solución no puede ser más fácil, es decir, que los alumnos «disfruten» haciendo música y al mismo tiempo sean protagonistas de esa comunicación existente entre espectadores e intérpretes. Ya que en definitiva la música es eso, un lenguaje donde los sentimientos juegan un papel muy importante.

Es de destacar los conciertos de alumnos, puesto que niños que llevan un curso solamente con el instrumento ya están haciendo su primera actuación en público y al mismo tiempo junto con otros compañeros están «montando» obras en conjunto. Lo que les supone vivir con anterioridad unas experiencias que le van a ir marcando en su vida personal y artística.

Entre las actividades que se van a celebrar el próximo curso, cabe destacar la III Ttopaketa de Coros Infantiles que se celebrará en Lezo en el mes de abril. Y donde participarán cerca de 400 niños correspondientes a 8 coros de la bahía de Jaizkibel.

En este tipo de acontecimientos los padres, profesores, ayuntamiento y, claro está, los propios alumnos, jugamos un papel importante, puesto que nos debemos considerar parte activa de la pedagogía del principio, constituimos cada una de las rocas producto de esa erupción volcánica, que sedimentará en la columna vertebral de la cultura musical del pueblo de Lezo.

XANTI ESPINA ANDUEZA



Kaixo! ¡Ya un semestre de funcionamiento! Se podría sacar un pequeño balance, ¿no? Pues, mira. Las cosas no van tan mal. Después de un principio con bastantes dificultades técnicas debidas a la vetustez del proyector (pero bien contenidos de tenerlo), parece que, con el segundo aparato, tiramos para adelante. Unos dirán que el local no es realmente adecuado y que a veces hay que estirar el cuello para ver bien la pantalla; otros se van a quejar de que no se echan películas recientes, pero, al final, ya el cine-club tiene su público regular y nos alegramos de que consiguiera atraer a muchos jóvenes lezotarras.

Por eso hemos intentado seleccionar películas del gusto de la juventud, tocando distintos temas de su preocupación o de su interés (en torno a la situación y lucha en América Latina, a la mili, a la autoridad del padre, a lo nuclear, droga, etcétera, y también de risa o de miedo). Con unas películas lo hemos conseguido; con otras, quizás, hemos metido la pata; no es nada fácil y sobre todo el formato de 16 mm. no ofrece tantas posibilidades como el de 35 mm. o el vídeo.

También hay que decir que si el cine-club pudo seguir adelante, se debe a la ayuda económica del Ayuntamiento en buena parte y a una subvención del Gobierno Vasco. Agradecemos igualmente a todas las personas que, acudiendo como socios, ayudaron a este nivel económico como de ánimo.

En torno al cine infantil, el cual conoció un éxito incontestable hasta los primeros días de playa (acudieron hasta 175 niños a una sesión en invierno), se constituyó un grupo de padres interesados en asumir el buen desarrollo de las sesiones del domingo. Para la próxima temporada, esperamos todavía más personas y que se organicen más turnos. ¡Anímate!

La orientación que deseamos ahora para el cine-club se podría concretar en una mayor participación de las entidades en la marcha del cine-club en el sentido de que pueda funcionar de manera óptima con la vida del pueblo: elegir el tema de una película en función de la preocupación de unos grupos del pueblo, echarla dentro de unos actos programados, pudiendo ser el cine-club un soporte interesante que utilizar a la hora de fomentar discusiones. Tampoco se quiere decir que el C.C. tiene que convertirse en un cine militante, pues éste atrae únicamente a la gente ya convertida, pero pensamos que unas películas de calidad permiten todo tipo de interrogaciones e incluso el desacuerdo con la óptica presentada por el realizador.


Hagamos del cine-club la herramienta de todos y de cada uno para conducir nuestra reflexión cada vez más adelante. Por eso, pedimos la colaboración a todos los sectores interesados del pueblo, y también a la hora de establecer la programación. ¡Que nadie se convierta exclusivamente en consumidor, sino que haga suyo el cine-club, eso es nuestro deseo más vivo!

En esa óptica, llamamos a los aficionados del cine a que se integren en el grupo. Sólo necesita un poco de ánimo e ideas pues no queremos que el cine-club sea algo estático y se caiga en la rutina.

«LEZOKO ZINE KLUB» AURRERA!

LEZOKO ZINE-KLUB TALDEA

« UNAS PALABRAS EN TORNO A LA FILMOTECA VASCA »



El «LEZOKO ZINE KLUB» encuestó a PEDRO ALDAZABAL, uno de los animadores de la FILMOTECA VASCA, quien contestó a nuestras preguntas con mucha amabilidad.

LEZOKO ZINE KLUB.—¿Nos puedes hablar un poco del funcionamiento de la Filmoteca?

PEDRO ALDAZABAL.—Bueno, la Filmoteca se creó el primero de mayo de 1978. Primero, tengo que subrayar una cosa: nunca una filmoteca fuera una distribuidora. Sus fines son: investigación, recuperación, archivo y conservación de todos aquellos materiales que hay referentes a nuestro país, así como las obras de nuestros realizadores, sin olvidar el cine universal; pero la primera es recuperar lo que es nuestro.

Los seis primeros años no hemos tenido ningún tipo de ayuda económica oficial. Este año el Gobierno Vasco nos dio una subvención de cinco millones, lo mismo que para el año pasado. Sabiendo que una copia de cine vale 250.000 pesetas, se entendió que no se pueda sacar muchas copias. Este dinero también asegura el mantenimiento (electricidad, teléfono), la compra de libros, los viajes, la investigación. Ninguno de nosotros que trabajamos aquí cobra una sola peseta. Ahora, la Diputación de Gipuzkoa lleva dos años ayudándonos para equipamiento: sistema de refrigeración para los archivos, puerta blindada, pequeño ordenador y un sistema de vídeo-proyección.



L. Z. K.—¿Así que es un poco un trabajo militante de vuestra parte?

P. A.—Desgraciadamente sí, porque me parece que en este país hay un principio básico, que ha puesto mucha gente mucha voluntad para hacer muchas cosas y cierto es que la gente no puede tampoco hacer todo, y más el volumen que está cogiendo la Filmoteca, el volumen de respuestas cara al exterior. Entonces, lo que se necesita es entrar en una fase más profesional, con el cual tengamos nuestros investigadores y un equipo completo. Yo me voy dentro de unos días en la inauguración de la Filmoteca Valenciana. Esta empieza ahora con un presupuesto anual de cien millones de pesetas y tiene aparte el sueldo de ocho personas dedicadas sólo a la investigación y a la recuperación de materiales, a dar ciclos de películas, etc... Ahora, a mí, cuando me dicen, a ver porque la Filmoteca no da ciclos de películas, yo tengo un principio básico, que no voy hacer la competencia a un cine-club. Luego también, nos llaman a veces pidiendo una película que el productor está explotándola, por la cual necesita recursos económicos. Efectivamente tenemos una copia, pero no la podemos dejar cuando hay una distribución. La investigación, la recuperación son más importantes para nosotros, para el público. Es mucho más importante que tengamos una magnífica biblioteca, que tengamos 600 metros de película. Queremos poder mostrar no solamente las películas que se producen, sino todos esos documentos antiguos que vamos recuperando. Cuando tenemos un documento antiguo de hace 50 años o más, tenemos que regenerarlo, y para un rollo de 300 metros de película en 35 mm. la regeneración de este material inflamable puede costar alrededor de las 300.000 pesetas. Yo creo que llegará un momento que tengamos una serie de documentos ya regenerados, y que se podrá enseñar. Con las películas que han dejado ya de ser comerciales, ¿qué ocurre? Acabas de ver que se está haciendo en imprenta un vídeo: el Gobierno Vasco ha autorizado la Filmoteca a un lanzamiento no comercial, a precios de costo de sus tres películas, que son: «HAMASIGARRENEAN AIDANEZ», «EHUN METRO» y «ZERGATIK PANPOX».

Bueno, resulta que esas películas, aunque han pasado en salas comerciales, se han visto muy poco. La idea es que lleguen más ampliamente. Parece que llevarán precios de unas 2.000 pesetas o algo menos cada vídeo, y que la puede comprar cualquier Euskaltegi, sala de cultura, etc..., interesados en tener esas películas en euskera, sin subtítulos.

L. Z. K.—Por el momento, ¿esas películas no existen en las tiendas de vídeo?

P. A.—No, porque el Gobierno no ha autorizado todavía la difusión en vídeo. Entonces, ha autorizado sólo a la Filmoteca. Seamos sinceros: hay

